**Azalpen txostena, Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei buruz, eta hura prestatzeko erabilitako irizpideei buruz.**

Ogasun eta Finantza Departamentuaren 2020. urterako aurrekontua hobeto egokitzen da emaitzetara bideratutako aurrekontuaren beharkizunetara.

Laburbilduta:

– 010 programak -zerbitzu orokorrak- beharrezkoak diren baliabide gehienak biltzen ditu ondorengo helburua inplementatzeko: -Departamentua administrazio modernoaren erreferente bihurtzea antolaketaren eta berrikuntza teknologikoaren ikuspegitik, herritarrei arreta emateko eta iruzurraren aurka egiteko-. Hortaz, 2020an programa honek Idazkaritza Teknikoak eta Laguntza eta Koordinazio Zerbitzuak garatu beharreko baliabideak eta ekintzak biltzen ditu.

2020an, ahaleginak zuzenduko dira Ogasuneko erdi mailako teknikarien, goi-mailako teknikarien eta zerga agenteen EEPa garatzeko beharrezko lankidetza ematera, eta e-Administrazioko proiektuetan aurrera egitera.

– 100 programak -Ogasun Zuzendaritza Nagusia- jasotzen dituen baliabideak ondorengo helburua lortzeko baliabideak aurreikusten ditu: -Iruzur fiskala prebenitzea eta esestea-. Era berean, programa honetan partidak jasotzen dira iruzurraren aurkako borrokan beharrezkoak diren proiektu informatiko handiak inplementatzeko, Gipuzkoako Ogasuna modernizazioaren bidean jarriko dutenak.

Programa honen barruan, nabarmendu behar da 2020an Ikuskaritzako Zuzendariordetzak bultzatu dituen Big Data eta BIH proiektu estrategikoak garatu eta ezartzeko zenbatekoaren gehiagotzea.

– 110 programak -Herritarren arreta- ondorengo helburua inplementatzeko baliabideak jasotzen ditu -Zerga betebeharren betetze maila hobetze-a, ekarpenek ongizate estatuaren bermatzaile gisa duten balio soziala hobeto ulertzearen ondorioz, eta iruzurrezko jokabideekiko tolerantzia sozial txikiagoa izatearen ondorioz.

Zerga heziketaren arloan, proiektu hauek aurrera eramateko behar diren kredituak jasotzen ditu programa honek:

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Hacienda y Finanzas respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

El presupuesto para el ejercicio 2020 del departamento de Hacienda y Finanzas mejora su adaptación a los requerimientos de un presupuesto orientado a resultados.

Básicamente:

– El programa 010 -servicios generales-, contiene la mayoría de los recursos necesarios para implementar el objetivo -Convertir al departamento en un referente de administración moderna en términos de organización e innovación tecnológica, dirigida a la atención a la ciudadanía y a la lucha contra el fraude-. En consecuencia, en 2020 incorpora los recursos y acciones a desarrollar por Secretaría Técnica y por el Servicio de Apoyo y Coordinación.

En 2020, los esfuerzos se centrarán en la colaboración para el desarrollo de las OPEs de técnicos/as superiores, técnicos/as medios de Hacienda y agentes tributarios, así como en el impulso de los proyectos de administración electrónica.

– El programa 100 -Dirección General de Hacienda- contiene los recursos necesarios para implementar el objetivo -Prevenir y perseguir el fraude fiscal-, así como las partidas necesarias para implementar los grandes proyectos informáticos necesarios para la lucha contra el fraude pero que también van a avanzar en la modernización de la Hacienda guipuzcoana.

En este programa destaca en el ejercicio 2020 el aumento de las dotaciones para el desarrollo e implantación de los proyectos informáticos estratégicos Big Data y SII de la Subdirección de Inspección.

– El programa 110 -Atención ciudadana-, contiene los recursos necesarios para implementar el objetivo -Mejorar el cumplimiento de las obligaciones tributarias-, como resultado de una mayor comprensión del valor social de las contribuciones como garantes del estado del bienestar y de la menor tolerancia social respecto a las conductas fraudulentas.

En materia de educación tributaria este programa recoge los créditos necesarios para los proyectos:

- zerga heziketari buruzko modulu bat garatzea hala nahi duten ikastetxeetan, Araba eta Bizkaiko foru ogasunekin eta EAErekin koordinatuta.

- “Fiskalitatea berritzeko ideiak” saria.
- EHUko udako ikastaroaren antolaketa, berriro berrabiaraziko dena.

– 200 programak -Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza- helburua garatzen du: -Legegintzaldi amaieran aurrekontu-egonkortasuna eta jasangarritasun finantzarioa lortzea foru sektore publikoan-. 2020an, lan egiteko bide berean jarraituko da, emaitzetara bideratutako aurrekontuan sakontzen eta beharrezko tresneria informatikoa garatzen. Ez dago azpimarratzeko aldaketarik.

– 300 programak -Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusia- ondorengo helburua garatzen du: -Zerga sistema desberdintasun ekonomikoa murrizteko benetako tresna bihurtzea, zergak eta finantzak arautzeko ahalmena garapen ekonomikoaren, enpleguaren eta ongizatearen zerbitzura jarriz-.

– 400 programak -Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa- helburu hau garatzen du: -Erreklamazio ekonomikoak eta administratiboak tramitatzea eta ebaztea-. Ez dago azpimarratzeko aldaketarik.

– Azkenik, 210 programa -Zor publikoa- eta 310 programa -Erakundeekiko konpromisoak- programa instrumentalak dira, eta haietan beharrezko sarrerak eta gastuak jasotzen dira hainbat premia betetzeko, hala nola Zor Zerbitzuarenak, konpromisoenak (Kupoa, Ekarpenak, eta Udalak Finantzatzeko Udal Funtsa) eta beste hainbat.

210 programari dagokionez, aipatu beharra dago 6. kapituluan zorpetze murriztapen prozesuaren barruan eta interes tipo minimo historikoen testuinguruan, finantza kargaren gutxitzea eman dela. Bere aldetik, 9. kapituluan zorpetzearen murriztapenarekin jarraitzen da legealdi amaieran jasangarritasun finantzarioa lortzeko helburuarekin.

Aurrekontuko zifretan ageri diren aldaketa nagusien jatorria izan dira langileria gastuen hazkundea eta zerga iruzurraren aurkako borrokaren baliabideak indartzeko izandako gastu informatikoak. Bestalde, gastu finantziarioak eta zorraren amortizazioa era esanguratsu batean murrizten da.

- desarrollo de un módulo de educación tributaria en los centros educativos que así lo deseen, en coordinación con las Haciendas Forales de Araba y Bizkaia y con la CAPV.
- Premio “Ideas Innovadoras de Fiscalidad”.
- Organización de curso de verano UPV, que se retoma de nuevo.

– El programa 200 -Dirección de Finanzas y Presupuestos- desarrolla el objetivo -Alcanzar la estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, en el sector público foral, al cierre de la legislatura-. En 2020 se seguirá en la misma línea de trabajo, avanzando en la profundización del presupuesto orientando a resultados y en el desarrollo informático correspondiente No hay variaciones significativas.

– El programa 300 -Dirección General de Política Fiscal y Financiera- desarrolla el objetivo -Convertir el sistema impositivo en una verdadera herramienta para reducir la desigualdad económica poniendo la capacidad normativa fiscal y financiera al servicio del desarrollo económico, el empleo y el bienestar-.

– El programa 400 -Tribunal Económico Administrativo Foral- desarrolla el objetivo -Tramitar y resolver las reclamaciones económico-administrativas-. No hay variaciones reseñables.

– Finalmente, los programas 210 -Deuda Pública- y 310 -Compromisos Institucionales-, son programas instrumentales que recogen los ingresos y gastos necesarios para atender al Servicio de Deuda y a los compromisos de Cupo, aportaciones, fondo foral de financiación municipal y otros.

En lo referente al programa 210, subrayar que en el capítulo 6 como consecuencia del proceso de reducción del endeudamiento junto con un escenario de tipos de interés en mínimos históricos, se genera una minoración de la carga financiera. Por su parte, en el capítulo 9 se continúa con la reducción del endeudamiento con el objetivo de alcanzar la sostenibilidad financiara al cierre de la legislatura.

Las principales variaciones en las cifras presupuestadas obedecen al incremento de gasto de personal y gastos informáticos para reforzar los recursos de lucha contra el fraude. Por otro lado, se reducen considerablemente los gastos financieros y la amortización de deuda.